

ANIZTASUNA IKASGAI

EIBAR

ikasmateriala





SARRERA

Ikasmaterial hau Eibarko Udalak, Akebai plataformak eta Badihardugu Elkarteak Eibarko ikastetxe guztiekin elkarlanean burutu duten “Aniztasuna ikasgai” egitasmoaren baitan prestatutakoa da. Aldez aurretik, gure eskerrik beroena egitasmoan parte hartu duten ikasle, irakasle eta gurasoei.

Ikasmaterial honen helburua Eibarko ikastetxeetan aniztasuna lantzea da, ikasgelako eta herriko kultur, hizkuntza eta kultura aniztasuna abiapuntu moduan hartuta.

Gure proposamena **Aniztasunaren Astea** antolatzea da, eta egunero lanketa txikiren bat egitea gelan. **Aniztasunaren Hilabetea** ere izan daiteke, eta lanketak astean behin egitea:

1. saioa. **Kultur aniztasuna**. Jatorria, jantziak eta ospakizunak
2. saioa. **Hizkuntza aniztasuna**. Hizkuntzak eta alfabetoak
3. saioa. **Jolasean eta kantuan**
4. saioa. **Munduko platerak**
5. saioa. **Aniztasun Festa** (gurasoen bisitarekin)

Ondorengo asteetan eta hilabeteetan ere ekintza xumeak egitea komeniko litzateke, ikasleen jatorria, kultura eta erlijioak kontuan hartuta. Ramadanaren bukaera eta Urte Berri txinatarraren hasiera ospatzea, adibidez. Ospakizun txiki sinbolikoak egin daitezke gelan.

Ikasleen adina: Lehen Hezkuntzarako aproposa. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du lanketa noiz, nola eta zer gelatan egin.

Aurre-lana:

-Ikasleei esan beren gurasoen herrialdeetako gauza tipikoak eramateko gelara (jantziak, objektuak, argazkiak...), lanketa egingo den egun horretan.

-Gurasoa(k) Aniztasun Festara gonbidatu, eta haiekin batera antolatu festatxoaren nondik norakoak. Festa horrek era askotako osagaiak izan ditzake: ipuinak, abestiak, musika, jolasak... gurasoek erabaki dezatela zer egin nahi duten.



1. KULTUR ANIZTASUNA: Jatorria, jantziak eta ospakizunak

Gelako jatorri guztiak munduko mapan kokatuko ditugu; ikasleek egin dezakete.

- Nongoak dira zure gurasoak? Beste herrialde batekoak direnak, nolatan etorri ziren Eibarrera?
- Nolakoak dira herrialde horiek? Zer berezitasun dituzte? Kontatu nolakoak diren!
- Zein da urrutien dagoena? Zein da desberdinena? Zergatik?

Hemen baserritarrez janzten gara, jaietan. Beste herrialde batzuetako janzkerak ezagutuko ditugu, Eibarren elkarrizketatutako ikasle eta gurasoek aipatutakoak:

Sakatu URL loturak taulan



Argentina



Senegal: 1 eta 2



Herrialde katalanak



Nepal



Peru



Elgoibarren jasotakoak:

Sakatu URL loturak
taulan



Albania



Kongo



Bolivia



Brasil



-Ospakizunak aldatu egiten dira kultura batetik bestera... Badakizue Txinan urtea ez dela urtarrilean hasten? Noiz hasten da?


-Badakizue zer den Ramadana? Zer erlijio ezagutzen dituzue?

-Gabonak erlijio katolikoarekin lotuta daude, eta ez dira toki guztietan ospatzen. Gabonetako oparien ohitura ere aldatu egiten da toki batetik bestera... Hona Olentzero eta erregeak datoz... eta beste toki batzuetara?

Sakatu URL loturak taulan



Budismoa



Ramadana:
Marokon eta Senegalen




Arkumearen festa



Urte Berri txinatarra



Ezagutu ditzagun Eibarren elkarriketatutakoek aipatutako leku eta objektu batzuk:



Ikasleek gelara eraman dutena erakutsi dezatela (jantziak, objektuak, argazkiak...), eta azalpenak eman ditzatela.



Eskulanak egingo ditugu!

Piñata bat egin dezakegu (edo pare bat), eta goxokiz bete, Aniztasun Festan erabiltzeko. Piñatak egitea nahiko langintza luzea izaten denez... hona hemen piñatak modu errazean egiteko bi adibide:



1. Piñata erraza paperezko lanpararekin (soketatik tiraka irekitzen da; ez dago makilarekin jo beharrik: arrisku gutxiago)
2. Piñata kartoizko kaxarekin

Beste aukera bat: Arrautza gogorak margotzea, Errumaniako Adrianaren azalpenak entzun ostean.



Arrautzak margotzeko modu bat (janarirako kolorantearekin).



2. HIZKUNTZA ANIZTASUNA: Hizkuntzak eta alfabetoak

-Zer hizkuntza ezagutzen dituzue? Arbelean idatziko ditugu.

-Idatzi arbelean oinarriko hitz batzuk ('kaixo', 'zer moduz?' eta 'agur'), ahalik eta hizkuntza gehienetan.

Sakatu URL loturak
taulan



Hona hemen Eibarren jasotako hizkuntza batzuk:

| | | | |
|--------------------------|----------------------------|-----------------|----------------|
| <u>Wolofera</u> | <u>Amazigera</u> | <u>Ingelesa</u> | <u>Alemana</u> |
| <u>Egiptoko arabiera</u> | <u>Nepalera eta tamang</u> | <u>Katalana</u> | |

Guk alfabeto latindarra erabiltzen dugu (a, b, c, d...). Zenbat alfabeto desberdin daude? Nola idazten da zure izena arabieraz? Eta txineraz, hebraieraz edo japonieraz? Hementxe ikusi dezakegu!

| | | | | |
|-----|------|-----|------|-----|
| Ɵ k | Ɔ kh | Ɔ g | Ɔ gh | Ɔ ṅ |
| Ɔ c | Ɔ ch | Ɔ j | Ɔ jh | Ɔ ñ |
| Ɔ t | Ɔ th | Ɔ d | Ɔ dh | Ɔ ṅ |
| Ɔ t | Ɔ th | Ɔ d | Ɔ dh | Ɔ ṅ |
| Ɔ p | Ɔ ph | Ɔ b | Ɔ bh | Ɔ m |
| Ɔ y | Ɔ r | Ɔ l | Ɔ v | |
| Ɔ ś | Ɔ ṣ | Ɔ s | Ɔ h | |
| Ɔ | Ɔ | Ɔ | Ɔ | Ɔ |
| a | i | u | e | o |

Nepalgo alfabetoa

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 月 | 官 | 匹 | 刀 | 三 |
| A | B | C | D | E |
| 下 | 巨 | 升 | 工 | 丁 |
| F | G | H | I | J |
| 水 | 心 | 冊 | 内 | 口 |
| K | L | M | N | O |
| 戶 | 己 | 尺 | 弓 | 七 |
| P | Q | R | S | T |
| 白 | 人 | 山 | 父 | 了 |
| U | V | W | X | Y |

Txinako idazkera



- Zuen ustez, garrantzitsua da euskara jakitea Eibarren bizitzeko? Balio al du integratzeko, bertakoago sentitzeko?

Elkarriketatu ditugun gurasoetako batzuek diotena:

- [Aisha marokoarra](#)
- [Quico katalana](#)
- [Reiner kubatarra](#)

Eskulanak egingo ditugu!

- Oinarrizko hitz bat ("Kaixo" adibidez) gelan ezagutzen dituzten hizkuntza guztietan idatzi, koloretako kartulinetan, hizki handiz. Ondoren, gelako hormetan itsasi ditzakete.
- Beren izena beste alfabeto batean idaztera ere animatu daitezke ([Begiratu hemen](#)).
- Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Eibarren? Astero hizkuntza bat aukeratu, eta egunero gelan sartzean hitz hori erabili dezakegu.





3. JOLASEAN ETA KANTUAN

- **Abestiak**

Sakatu URL loturak
taulan



Eibarren jasotako abesti batzuen adibideak ikus ditzakegu:

| | | |
|----------------------|-----------------------|-----------------|
| <u>SENEGAL</u> | <u>ALEMANIA</u> | <u>TXINA</u> |
| <u>GHANA 1 eta 2</u> | <u>MAROKO 1 eta 2</u> | <u>NEPAL</u> |
| <u>KATALUNIA</u> | <u>EGIPTO</u> | <u>PORTUGAL</u> |

-Badakizue abestiren bat euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzaren batean? Kantatu!

Kantatu dezagun!

Kanta erraz bat landu daiteke gelan, karaokea eginez, ikasleen etxeetan erabiltzen dituzten hizkuntzetako batean. Ikasleek proposatutakoa izan daiteke edo guk aukeratutakoa. Adibiderako ikus:

KONGO Olele eta Kikwanga

MALI Makun

TXINA Ni wa wa



ALEMANIA Hopper Reiter

FRANTZIA Alouette

BRASIL O pato



- **Jolasak**

Beste herrialde batzuetako jolas batzuk ezagutuko ditugu:



| | | |
|-----------------------------|-------------------------------|-----------------------------------|
| <u>SENEGAL</u> esku-jolasa | <u>IRLANDA</u> Mr Wolf jolasa | <u>IRLANDA</u> Hatzamarren jolasa |
| <u>MEXIKO</u> Kanika-jolasa | <u>EGIPTOKO</u> jolasa | <u>KATALUNIA</u> bi jolas |

Jolas batzuk hemengoen oso antzekoak dira, ia berdinak. Nepalen jolasten duten “Dandi-biyo” jolasa, adibidez, “*Txirikiletan*” deitzen da hemen:





“Harritxoen jolasa” ere ezaguna da gure aitona-amonentzat; jolas hori “tortolosekin” egiten zuten (ikus Euskal Herriko bideoan umeak jolasean). Kuban, “tortolosen” ordez “yaquiak” erabiltzen dituzte (izar forma dute).

Sakatu URL loturak
taulan



Italia

Maroko

Kuba

Euskal Herria



Jolastu dezagun!

Euskal Herriko adibidea eta azalpenak kontuan izanda, umeak jolasean ipiniko ditugu. Harritxoek ordez, kanikak eta babarrun aleak eraman ditzakegu gelara. Tortolosekin ere egin daiteke eta pilotatxo batekin, baina tortolosak lortzeko zailagoak dira.



4. MUNDUKO PLATERAK

- Zein da zure plater edo jaki gustukoena?

-Ezagutzen beste herrialde batzuetako platerak? Batzuk oso ezagunak dira: pizza, lasagna, cous-cousa, guakamolea, burritoak, janari txinatarra...

-Zuen etxean egiten al duzue plater berezirik? Kontatu zer jaten duzuen!

Eibarren jasotako adibide batzuk:



| | | | |
|---|---|---------------------------------------|----------------------------|
| | | | |
| <p>IRLANDA <u>English breakfast</u></p> | <p>NEPAL <u>Plater konbinatua</u></p> | <p>MAROKO <u>Cous-cousa</u></p> | |
| | | | |
| <p>ARGENTINA <u>Locro</u></p> | <p>KATALUNIA: <u>Pan tomaquet</u></p> | <p>ALEMANIA <u>Saltxitxak</u></p> | <p>MAROKO <u>Tajin</u></p> |



EGIPTO Kunafa



SENEGAL Thieboudienne
1 eta 2



TXINA
Ahate pekindar erara

Elgoibarren jasotako beste plater batzuk:



ERRUMANIA
Sarmale



BRASIL
Brigadeiro bonboiak



ALBANIA
Byrek



MAROKO Pastela
eta cous-cousa



KONGO
Fufu 1 eta 2



ITALIA
Pizza



BOLIVIA
Picante de pollo



ITALIA
Ravioliak



Badakizue herrialde denetan ez dutela sardeskarekin eta goilararekin jaten? Batzuek eskuarekin jaten dute, beste batzuek zotzekin...



Eibarren bizi den Reiner kubatarrak bideo honetan azaltzen digu: [Arroza kubatar erara](#). Kubako erara nola egiten den ere kontatzen du: hemen [errezeta](#).



Bazenekiten Kuban ez dutela "arroza kubatar erara" esaten dioguna (tomatearekin eta arrautza frijituarekin) jateko ohiturarik?



Errezetak egingo ditugu!

Janari tipiko edo tradizionalen errezetak ezagutuko ditugu. Bertakoak izan daitezke edo beste herrialde batzuetakoak. Proposamena: ikasle bakoitzak errezeta bat prestatzea, eta bideoan grabatzea, nola egiten den. Mobileko kamerarekin grabatu dezakete, etxean, gurasoen laguntzarekin. Edizio-programaren bat ezagutzea komeni da, muntaia txikiak egin ahal izateko.

- 1- Osagaiak: zein diren esan eta erakutsi
- 2- Nola prestatu: azalpenak eman, platera prestatzen joatearekin batera

Ikus bi adibide hauek:

- [Ikramen txokolatezko bizkotxoak](#)
- [Uxueren txokolatezko bizkotxoak](#)

Hori etxerako lana izango da, epe bat jarrita egin dezaketena. **Gelan bertan** Brasilgo “brigadeiroak” egin ditzakegu. Oso erraza da (ez da laberik ez surik behar) eta oso goxoak dira. Simonek azaltzen du zer diren, [bideo honetan](#). Eta hona hemen [errezeta](#):

OSAGAIAK:



- Esne kondentsatua 
- Gurina
- Kakao hautsa 
- Txokolatezko makilatxoak 



5. ANIZTASUN FESTA

Aniztasunaren Asteari/Hilabeteari amaiera emateko, festa txiki bat antolatu dezakegu. Gelako aniztasuna kontuan hartuta antolatuko da, eta gurasoek parte hartzea garrantzitsua izango da. Aukera bat: gela bat baino gehiago elkartzea, festarako.

Mota askotako festak antola daitezke. Guraso bakarra gonbidatu daiteke, eta herrialde jakin bat ezagutarazteko festatxoa egin (eta festa txiki gehiago egin urtean zehar, beste herrialde batzuekin). Posible da baita ere ahalik eta kultura gehien bilduko dituen festa egitea, edo kontinente batekin lotutako festa egitea (adibidez, festa afrikarra).

Zer egon daiteke festa horretan?

- **Musika.** Munduko musikak ipini ditzakegu. Ikasle bakoitzak kanta bat aukeratu dezake, eta irakasleari helarazi, playlist-a antolatzeko. Zuzeneko musika ere izan daiteke, gurasoren bat musika tresnaren bat jotzera edo abestera animatzen baldin bada (bere ama hizkuntzan, ahal dela). Karaokea ere antolatu daiteke, kantu laburrekin; horretarako, kantuen letrak (eta itzulpenak) beharko genituzke, denok kantatu ahal izateko.
- **Hitzaldiak/azalpenak.** Gurasoek beren herrialdeei eta hizkuntzei buruzko azalpenak eman ditzakete. Laburrak izan beharko dute eta oso grafikoak (argazkiak, mapak...). Euskaraz baldin badakite, hobeto.
- **Ipuinak.** Ipuin laburrak kontatu ditzakete gurasoek, nork bere hizkuntzan. Seme-alabek egin ditzakete itzulpen-lanak euskarara.
- **Jan-edana.** Festa onik ez dago janaririk gabe. Egun horretan, ikasle batzuk etxean egindako zerbait ekarri dezakete (berotzerik behar ez duena, aurrez gurasoekin hitz eginda). Zotz txinatarrak, te marokiarrak...
- **Jantziak.** Beste herrialde batzuetako jantzi tipikoak jantzi ditzakete.



- **Jolasak.** Beste herrialde batzuetako jolasak ezagutzeko eta jolasteko egun polita izan daiteke. Piñata ere prest egongo da egun horretarako, goxokiz beteta!

